

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Beste bizitza batean



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



O tempora! O mores!

EDUARDO GIL BERA

Pamiela, 1989

Ramon Saizarbitoriaren *Aberriaren alde* (eta *kontra*) saiakera liburuan irakur daiteke: “Beharbada, barne-kritika (...) zaila delako edo, kontua da, noizean behin, euskal kulturaren munduko norbaitek atea danbatekoz itxi eta alde egiten duela”. Hitz horiek irakurri eta Eduardo Gil Bera burura etortzea, bat. Atea itxi –zaratots handirik atera gabe, hori bai– eta alde egin izanagatik –Angel Errok: “Euskal literaturak galdu duen egilerik interesgarrienetako”–. Eta auskalo barne-kritika zaila delako. Akaso bai, agerkari honetan txetxetatu baitzuen: “Tudelatik euskalduna! Ematen dik gainera jantzia dagoela, badakie-l. Baina hasi duk hiperkritiko eta ganberro xamar eta, ixi!”. Auskalo zergatik, baina desertatu du, utzi egin dio, ez da gehiago izango –Hasier Etxeberriaren hitzetan: “Domaiia den arren, seguru asko euskarak betiko galdu duena”–.

Alberto Barandiaranek esango lukeen bezala, ordea, “beste bizitza batean” euskaraz idatzi zituen lanak. Har diezaiozun bat, adibidez, *O tempora! O mores!*, bigarren saiakera liburua, lehena, *Atea bere erroetan bezala*, 1988koa, eskuraezina baita. “Kontzientzia eta moralari buruzko gogoeta zenbait” aurkituko ditugu bertan, azpituaren arabera. Eta halaxe hasten da hasi, giza moralaz, kontzientziaz –“giza moralak ikertzekotan baldin bagara, kontzientziarena dugu lehenik xuritu behar dugun prolema”–, baina gai filosofiko jakin bati buruzko liburu zurruna dirudiena, berehala bilakatuko da, hola eta hala, zentzuaz, obedienciaz, bestaz, erlijioez, suizidioaz, normaltasunaz, aisiaz, segurtasunaz eta abarrez hausnarrean ariko zaigun testu jakin-atsegingarria. Azken aldera gainera

jartzen da inoizko interesateen, lastima da beste ehun orrialde gehiago ez irautea. Eta guztia irakurketa zabal, izpiritu kritiko, are burlaize ukitu batez idatzia. Hara zer dioen, bestela, anarkistez: “Kristaukeriari fidelitasunean, haiek dira lehenak, gero sozialistak, protestantak eta, azkenik, puska batez gibelagoan, katolikoak”. Nik baino hobeto dio Josu Landak: “Jipoiak ezker-eskuin luzatzeko duen eleganzia lotsagabea, aipamenak eta erreferentziak indiskriminatuki baina erudizio faltsuko itzalik gabe egiteko modua, irakurlearen usteak eta portaerak kuestionatzeko manera ez-inkisidorea”.

Joseba Sarrionandia, bukatzeko, *Bost idazle* elkarrizketa liburutik: “Ez nioke euskaraz idazteko esango Pablo Antoñana, Miguel Sánchez-Ostiz, Pedro Ugarte edo Marie Darrieussecq moduko jendeari (...) baina nahia-go nuke Eduardo Gil Berak euskaraz idazteari ez uztea”. Neronek

ere bai, noski. Inoiz bueltatu artean, berriaz, “beste bizitza” hartakoak dauzkagu irakurgarri. ■

